

2025/2053 DEKRETUA

DEKRETUA. Hernani, 2025eko abuztuaren 25a.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 33. artikuluan, hau xedatzen du:

«1.— Hamar mila biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango duela, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. [...]

3.— Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde-emaitzen arabera ordezkari-kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Boto berdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan».

Aurrekontua gauzatzeko arauaren 11.2., 3. eta 5. apartatuek honela diote:

«11.2.- Arduraldi osoa edo partziala duten karguen gutxieneko soldata maila hau izango da (soldata gordina urteko):

- Alkatea: 55,210 euro.

- Gobernu-erantzukizuna duten zinegotziak: 39.878 euro.

- Gobernu-erantzukizunik ez duten zinegotziak: 35.890 euro.

Dedikazioa duten zinegotzietan, Hernaniko Udalean liberazio bat hartzeko utzi behar izan duten lanaren soldata bermatuko zaie.

Artikulu honetan —11.2— jasotako soldata guztiak, 2024ko urriaren 31n indarrean zeudenak dira, eta urtero egokituko dira langileei egindako soldata-igoera aplikatuz.

11.3- Arduraldi partzialak, proportzioz ordainduko dira dedikazioaren arabera, baina betiere gutxienez % 20ko arduraldia beharko da ordainsaria jaso ahal izateko. Dedikazio partzial horrek gehieneko muga izango du, udalean nahiz kanpoan duten arduraldi partzialen baturak ezin izango baitu % 100eko lanaldia gainditu. Udalaz kanpo duten dedikazioa eta soldata enpresa ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira.

11.5.- Oposizioko talde guztiek liberazio partzial edo oso izango dutela bermatuko da, udal-gobernuaren kontrol- eta fiskalizazio-eginkizunak modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko. Nolanahi ere, oposizioaren eskubide horiek zuzeneko korrelazioa izango dute goragoko mailako arauak betetzen direla, hala nola Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikulua».

Horiek horrela, Andoni Amonarraiz Gomezek eskatu du 2025-7955 sarrerako erregistro-zenbakia duen idatziaren bitartez bozeramaile eta arduraldi eskusiboko karguari uztea; eta Hernaniko Udalak beharrezko izapideak egin ditzan Mikel Gurutzeaga Zubillaga EAJ-PNVko bozeramailea izate aldera arduraldi eskusiboko erregimenpean.

Aurreko guztiak aintzat harturik, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau:

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa. Mikel Gurutzeaga Zubillaga izendatzea bere kargua dedikazio osoz betetzen ari den oposizioko zinegotzia arduraldi eskusiboan betetzeko, jaso beharreko urteko ordainsariak honako hauek direlarik:

- Urteko ordainsari gordina: 36.066,24 euro, 14 soldatatan jasotzeko.
- Noiztik aurrera: 2025eko irailaren 1etik.

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1.01.100.01.912.00 «Gobernu organoen oinarritzko ordainketa bestelako ordainsariak».

Bigarrena. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Mikel Gurutzeaga Zubillagaren afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrak enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileei dagokienez jartzen dizkieten betebeharrak.

Hirugarrena. Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta neuk, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.